

## KOSTU EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen du. Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak honako hauek izango dira:

Hasteko, kostu finkoei dagokienez, lokal propio bat behar dugu, gauza guztiak bertan antolatzeko eta enpresaren kudeaketa aurrera eramateko, horrek hilabetero 400€ inguruko gastu finkoa sortuko digu.

Horrez gain, gure lokaleak gure aplikazioa hedatzeko beharko dugun funtsezko baliabide bat interneta izango da, pack bat kontratatuko dugu interneta, wifi-a eta telefonoa, etab. izateko, hori baita hilero 60€-ko kostu finko bat suposatuko du gure aurrekontuan.

Gainera, lokalean bertan bezeroenganako arretaz arduratzen den langile bat egongo da norbait dendan bertan bere arazoa jakinarazi nahi badu bertara jotzeko, baita telefonoz bezeroekin harremanetan egongo da. Beste langile bat beharko da enpresekin harremanetan egoteko eta aplikazioan eskaintzeko lanpostuak biltzeaz arduratuko dena. Azkenik, beste bi langile beharko ditugu aplikazioaren mantentze lanaz arduratzeko. Langile hauen soldatak baita kostu finkoak izango dira, gutxienez 1000€-ko soldata bakoitzari, eta gutxi gorabeherea 4 langile; 4000€ hilero.

Hasieran enpresa hasteko hainbat gailu erosi beharko ditugu. Lehendabizi ordenagailuak beharko ditugu lan egin ahal izateko, ordenagailuen prezioa 700€ ingurukoa izango da, eta bat baino gehiago beharko dugu pertsona bat baino gehiago lan egin ahal izateko denbora berean, beraz, hiru ordenagailu beharko ditugu. Baita telefono gailu bat beharko dugu harremanetan jartzeko bai bazkide eta bai bezeroekin, telefonoaren prezioa 40€-takoa izango da.

Kostu aldakorrei dagokienez, Argiaren kostua desberdina izango da, hilabete bakoitzean ez dugu berdina gastatuko, eta moduko bestelako kontuak ura edo gasa bezala baita beharko ditugu eta aldakorrak dira.

LEHENENGO HILABETEA			
Lokala	400€ hilero	x1	400€
Internet eta etab.	60€ hilero		60€
Ordenagailuak	700€	x3	2100€
Telefonoa	40€	x1	40€
Soldatak	Langile bakoitza 1000€ hilero	x4	4000€
<b>GUZTIRA:</b>			<b>6600€</b>
<b>Kostu finkoak (hilero):</b>	Lokala(400€), Internet eta etab.(60€), Soldatak(4000€)		<b>4460€ +kostu ald.</b>

Aplikazio bat sortzeak 50.000€-tik 500.000€-tara behar izatera ailegatu daiteke, kostu hauek bazkideekin adostuko lirateke.